



Arnas luzez

Zer da hauteskundeetan emaitza onak lortzea? Ideologikoki, *statu quo*-arekin bat datozen alderdiek botere instituzionala eskuratzea izan ohi dute xede, eta gainera analisi politiko guztiak horretara makurtzea hobesten dute. Hauteskundeetan saritzen da ondo eginda dagoena. Eta kito. Hori ez litzateke onartu beharko; hala ere, erakundeak helburu politiko zabalago baten baitan kokatzen dituzte (ezkerreko) proposamen apurtzaileak dituzten alderdiek. Botere instituzionala hanka bat gehiago izan daiteke, funtsezkoa agian, baina jendartearen eraldaketan sakontzeko tresna gisa ulertuta betiere. Zertarako bestela?

Nafarroan (Nafarroa Garaia) esaterako, zaila da esatea Geroa Bai eta EH Bilduren emaitzak ez direla onak izan. Ez dira, alabaina, lauko gobernuari eusteko adinakoak. Aldaketa egiturazko zenbait faktore soziologikok eragin zuten, baina baita uneari eta abaguneari lotutako beste askok ere. Gogoratu behar dugu zenbakiak eta eserleku banaketa doi-doi geratu zirela boto gutxi batzuk gorabehera. Hein batean behintzat, gobernu aurrerakoia osatzea Podemosen ingurumariari esker izan zen posible, eta beste horrenbeste gertatu da orain kontrara, boto horiek lauko gobernuaren eremutik at geratu eta gehienbat PSNra joan direnean. Edonola ere, iragan hurbileko minak alde batera utzi

Gaitz erdi litzateke PSNk gobernatzea eta ez izatea UPN edo Navarra Sumaren gobernu bat berriz ere. Batetik, modu bakarria delako hamarkadatan eraikitako botere sare klientelarra desegiten jarraitzeko eta muturreko bazterkeria gainditzeko

eta hotzean begiratuta, gaitz erdi litzateke PSNk gobernatzea eta UPN edo Navarra Sumaren gobernu bat berriz ere ez izatea. Batetik, modu bakarria delako hamarkadatan eraikitako botere sare klientelarra desegiten jarraitzeko eta muturreko bazterkeria gainditzeko. Bestetik, PSNrengan aldaketa bultzatuko lukeelako, gutxika EAEn duen posizioa ekarrita. Urtetan erregimenaren eusle eta parte izatetik beste jarra batzuk hartzera eramango luke. Ez dago garbi Madriletik rol aldaketa hori ahalbidetuko duten ala ez: Nafarroa estatua auzi da, atzo, gaur eta bihar. Batera zein bestera, aldaketa ahalbidetu zuten egiturazko joera horiek indartzen jarraitzea da erronka, eta, bidenabar, desmotibazioa eta frustrazio desmo-



ESTITXU GARAI ARTETXE
EHU-KO IRAKASLEA

bilizatzailea ekiditea. Hauteskundeen aurretik posible zen eta hala da oraindik ere.

EAEn EAJk goranzko joerari eusten dio. EAJren marka-balio nagusi bihurtu dira moderazioa eta egonkortasuna, eta bertan hartu du aterpe tradizionala eskuma espainolistara zihoan boto askok. Baina ez multzo horrek bakarrik, erdiguneko kokapenak alde guztietatik bozak harrapatzeko beta ematen baitio, esker/eskuin, aberri/*patria*. Herri ikuspegi batetik, zer nahi duzue esatea, hobe Alderdi Popularrak ordezkartza politikoa galtzea eta epe luzera identitateen bilbaduran ere inpaktua izatea. Egia da, EAJ dela hauteskunde-zioen arabera mugitzen den alderdi horietako bat, eta sektore espainolista horretatik gizontzeak posizio subiranistetatik urrundu dezakeela. Halaber, PSerekin duen akordioa da aipatutako botere kuota hori bermatzen diona. Bestalde, EH Bilduren emaitzak ere kuantitatiboki oso onak dira. Oreka zailagoa du, ordea, hauteskundeek bultzatzen duten moderazio antzueren amaraunetik ihes egiteko eta aldi berean bere eremua handitzen jarraitzeko. Akordioen joan ere aukera berriak ustiatu behar ko ditu, betiere, helburu zabalago baten baitan. Izan ere, badirudi gauzak ez direla ezer aldatzen, baina aldatu aldatzen dira, eta, batez ere, aldatzeko aukera dago. Horri eutsi beharko. ●